

Euzko Gaztedi-EGIko kideok gaur Aralarren bildu gara, 1977ko lehen Alderditik ia berrogeita hamar urtera. Eta ezda kasualitatea.

1977an, demokrazia eta askatasuna berreskuratze kotestuinguruan, gazte belaunaldi bat Aralarra igo zen Euskadiren existentzia politikoa eta gure Herriak bere etorkizuna erabakitze duen eskubidea aldarrikatzera.

Belaunaldi hark etorkizunera begiratu zuen. Guri begiratu zigun.

Ia bost hamarkada geroago, gu gara lekuko hori jasotzendugunak. Eta horregatik, hain zuzen ere, Aralarreko Adierazpena argitaratzen dugu gaurkoan.

EUZKADI NAZIOA DA

Euzkadi nazioa da. Euskaldunok eskubidea dugu gure etorkizun politikoa erabakitze, eta Euzko Gaztedi-EGIk Euzkadi libre eta independente baten aldeko apustua berresten du. Independentzia zertarako?

Euskaraz bizi ahal izateko.

Gazteok gure bizi-proiektuak hemen garatu ahal izateko.

Gizarte justuagoa eta kohesionatuagoa eraikitze.

Gure industria eta ekonomia indartzeko.

Feminismoan aurrera egiteko, gure ingurunea babesteko eta Europar gure ahotsa izateko.

EUSKARA

Euskara ez da kulturaren osagai hutsa. Gure nortasun nazionalaren parte da, kohesiorako tresna eta etorkizuneko Euzkadi eraikitze funtsezko pieza.

Horregatik, euskararen ezagutza eta erabilera zazpi lurraldeetan sustatu eta defendatu behar ditugu, eta defendatzeko modurik hoberena gure egunerokotasunean erabiltzea da.

Euskara ezin da ondare historiko hutsa bihurtu. Hizkuntzabizia izan behar du: bizitzeko, harremanak izateko eta gure etorkizuna eraikitze hizkuntza.

DEMOKRAZIA

Diktaduran eta ondorengo urteetan, gazte abertzale askok, jeltzaleok eta EGIkideok, Espainiako Estatuaren jazarpena, tortura eta indarkeria jasan genituen. Horregatik, gure historia gogoratzea ez da iraganean ainguratzea: historiatic ikastea da.

Horren aurrean, gure erantzuna argia da:

Demokrazia gehiago. Askatasun gehiago. Giza eskubide gehiago. Parte-hartze gehiago. Justizia sozial gehiago. Guri gazteoi dagokigu demokraziaren alde borrokatzea!

HIRU KONPROMISO

Eta hemendik, Aralarretik, hiru konpromiso nagus iberretsi nahi ditugu:

1. Euskaldun gisa, euskaraz biziko den herri baten alde egingo dugu.
2. Abertzale gisa, zazpi lurraldeen arteko loturak indartuko ditugu eta Euskadi independente baten alde lan egingo dugu.
3. Gazte gisa, hemen bizitzeko, gure bizi-proiektuak garatzeko eta gure etorkizuna erabakitzeko dugun eskubidea defendatuko dugu.

Duela ia berrogeita hamar urte, gazte belaunaldi bat Aralarrera igo zen eta etorkizunera begiratu zuen.

Gaur, leku beretik, guk jasotzen dugu lekuko hori.

Benitok zion moduan:

Agian, agian,

Egun batez,

Egiazko Euskaldunak,

jeikiko dira

tirano arrotzak ohiltzeko.

GORA EUZKO GAZTEDI! GORA EUZKADI ASKATUTA!